Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala

Boletín Oficial de Gipuzkoa

2026ko martxoaren 18a, asteazkena — 52 — Miércoles, a 18 de marzo de 2026

GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOKO ADMINISTRAZIOA — 2 — ADMINISTRACIÓN DEL TERRITORIO HISTÓRICO DE GIPUZKOA

## GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

## EKONOMIA SUSTAPENEKO ETA PROIEKTU ESTRATEGIKOETAKO DEPARTAMENTUA

*«Igarobide.Tek» dirulaguntza programaren oinarri arautzaileak eta 2026ko deialdia.*

Diputatuen Kontseiluak honako erabaki hau hartu du 2026ko otsailaren 24ko bilkuran:

Egungo egoeran, eraldaketa digitalak, automatizazioak eta produkzio-ereduen etengabeko bilakaerak markatuta, funtsezko faktore bihurtu da gaitasun teknologikoen garapena eta egokitzapena lurraldearen lehiakortasun ekonomikoa eta ongizate soziala bermatzeko.

Teknologiaren adopzioa funtsezko zutabea da hazkunde ekonomikorako eta lurralde-lehiakortasunerako. Hala ere, eraldaketa horrek erronka esanguratsuak dakartza berekin, alderdi teknikoak zein kulturalak hartzen dituztenak:

— Azpiegituran eta tresna-garapenean funtsezko inbertsioak egiteko beharra.

— Tokiko esparrura egokitutako irtenbide berritzaileak garatzea eta inplementatzea.

— Antolaketa-aldaketaren kudeaketa eraginkorra.

— Etengabeko trebakuntza espezializatuko programak ezartzea.

Testuinguru horretan, talentu teknologikoa faktore kritikoa da enpresetan eraldaketa eta berrikuntza bultzatzeko.

Aurrerapen teknologikoen eta digitalen erritmo bizkorrak eragin du azken urteotan langileen gaitasunen eta enpresen beneтako beharren arteko desoreka gero eta handiagoa. Teknologien bilakaera-abiadurak eragiten du trebetasun teknikoak oso denbora-tarte laburretan zaharkitzea. Ondorioz, ez da nahikoa lanbide-karrera hasi aurretik prestakuntza arautua eskuratzea; prestakuntza-prozesuak eraldatu egin behar dira, eta arlo teknologikoan espezializatutako etengabeko prestakuntza-eredura bideratu.

Gaitasun teknologikoak eta digitalak garatzea lehentasun globala bihurtu da; izan ere, teknologikoki espezializatutako pertsonen eskasia berrikuntzarako eta lehiakortasunerako oztopo nagusietako bat da, eta eragin berezia du ETEetan. Gaur egungo langileen trebetasunen % 44, gutxi gorabehera, eguneratu egin beharko dira datozen bost urteetan, eraldaketa digitala eta automatizazioa gero eta handiagoak direlako. Eremu digitalari dagokionez, Europako Batzordeak azpimarratu du 2030erako 20 milioi espezialista prestatu behar direla Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologietan (IKT), hau da, ia bikoiztu egin behar dira egungo 10 milioiak.

Euskadiren kasu partikularrean, ekonomiaren eta gizartearen digitalizazioak, beste lurralde batzuetako joeren ildo beretik,

## DIPUTACIÓN FORAL DE GIPUZKOA

## DEPARTAMENTO DE PROMOCIÓN ECONÓMICA Y PROYECTOS ESTRATÉGICOS

*Bases reguladoras y convocatoria 2026 de las subvenciones del programa «Igarobide.Tek».*

El Consejo de Gobierno Foral ha adoptado el siguiente acuerdo en su reunión de 24 de febrero de 2026:

En la situación actual, marcada por la transformación digital, la automatización y la evolución constante de los modelos productivos, el desarrollo y adaptación de las competencias tecnológicas se ha convertido en un factor determinante para garantizar tanto la competitividad económica como el bienestar social del territorio.

La adopción de tecnología constituye un pilar fundamental para el crecimiento económico y la competitividad territorial. Sin embargo, esta transformación conlleva desafíos significativos que abarcan tanto aspectos técnicos como culturales:

— La necesidad de realizar inversiones sustanciales en infraestructura y el desarrollo de herramienta.

— El desarrollo e implementación de soluciones innovadoras adaptadas a la esfera local.

— La gestión efectiva del cambio organizacional.

— El establecimiento de programas de capacitación continua y especializada.

En este contexto, el talento tecnológico emerge como factor crítico para impulsar la transformación y la innovación en las empresas.

El acelerado ritmo de los avances tecnológicos y digitales ha generado, de manera persistente durante los últimos años, un desajuste creciente entre las capacidades de las personas trabajadoras y las necesidades reales de las empresas. La velocidad con la que evolucionan las tecnologías provoca una obsolescencia de las habilidades técnicas en periodos de tiempo muy breves. En consecuencia, resulta insuficiente la adquisición de formación reglada previa al inicio de la carrera profesional; se requiere una transformación en los procesos formativos, orientándolos hacia un modelo de formación continua especializada en el área tecnológica.

El desarrollo de competencias tecnológicas y digitales se ha convertido en una prioridad global ya que la escasez de personas tecnológicamente especializadas es uno de los principales obstáculos para la innovación y la competitividad, con especial impacto en las PYMES. Aproximadamente el 44 % de las habilidades de las personas trabajadoras actuales requerirán una actualización en los próximos cinco años debido a la transformación digital y la automatización creciente. En el dominio específicamente digital, la Comisión Europea subraya la necesidad de formar a 20 millones de especialistas en Tecnologías de la Información y la Comunicación (TIC) para 2030, lo que representa prácticamente duplicar los 10 millones actuales.

En el caso particular de Euskadi, si bien la digitalización de la economía y la sociedad avanza de forma constante, en línea

EK\CV GAO-I-2026-01371

etengabe aurrera egiten badu ere, egindako hainbat analisik adierazten dute teknikoki espezializatutako pertsonen eskaera handia. Goraka doazen joera teknologikoek, hala nola adimen artifizialak, zibersegurtasunak eta datuen azterketa masiboak (big data), agerian uzten dute eremu horietan kualifikatutako pertsonen eskasia. Gipuzkoak, Europako beste eskualde aurreratu batzuek bezala, aurre egin behar dio kualifikazio teknologiko handiko profesionalen defizit esanguratsuari, eta egoera hori egiturazko oztopo bat da gure lurraldeko garapen iraunkorrerako eta lehiakortasunerako.

Funtsezkoa da hezkuntza- eta lan-paradigma berri bat hartzea, talentuaren prestakuntza bizitza profesional osoko prozesu iraunkor gisa hartuko duena, estrategia eraginkorrak ezarriz, bai birkualifikazioari dagokionez («reskilling»), bai dagoen kualifikazioa hobetzeari dagokionez («upskilling»).

Gainera, garapen teknologikoan emakumeei ematen zaien laguntza funtsezkoa da genero-arrakala murrizteko, emakumeen presentzia oraindik ere gutxiengoa den sektore batean. Haien parte-hartzea bultzatzeak, ekitatea sustatzeaz gain, berrikuntza indartzen du, eta talentu teknologikoaren eskaera gero eta handiagoari aurre egiten laguntzen du.

Gipuzkoako Foru Aldundiak, garapen iraunkor eta inklusiboaren aldeko konpromiso irmoan, lehentasun estrategiko gisa ezarri du laguntza-mekanismoak sortzea, gorabidean dauden teknologietarantz trantsizio profesionala eta lan-merkatuaren eskakizun berriak errazteko.

Lehentasun hori esplizituki jasota dago 2024-2027 Plan Estrategikoan, bereziki 3. Erronkan: «Digitalizazio eta eraldaketa teknologikoko prozesu globaletara egokitzea eta horiei aurrea hartzea, eraginkortasunaren, lehiakortasunaren, berrikuntzaren eta jasangarritasunaren ikuspegitik sortuko diren aukera berriak aprobetxatuz, eta prestakuntzan, talentua atxikitzean eta erakartzean, enpresa-kulturan edo gizarte-harremanetan sortzen diren erronkei erantzuna emanez, pertsonak alde batera utzi gabe». 3.1.3 ekintza-ildoak argi eta garbi ezartzen du helburu hau: «Talentua sortzea, erakartzea, sendotzea eta fidelizatzea, eta pertsonen gaitasunak indartzea, besteak beste, proiektu erakargarriak sortuz».

Berrikuntzako Zuzendaritza Nagusiak lehentasunezko premia estrategiko gisa identifikatu du sustatzea etengabeko bilakaera teknologikoa duen enpresa-ingurunera egokitutako profil profesionalen garapena. Premia horrek garrantzi berezia hartzen du ETEen kasuan, erronka nabarmen handiagoei aurre egiten baitiete hainbat faktoreren ondorioz:

— Sarbide mugatua teknologia aurreratuetara eta dagokion azpiegituretara.

— Berrikuntza- eta garapen-jardueretarako baliabide ekonomiko eta giza baliabide mugatuagoak.

— Beren behar espezifikoetara egokitutako prestakuntza-programa espezializatuen eskasia.

— Integrazio txikiagoa izatea ezagutza eta baliabide teknologikoak trukatzea sustatuko duten lankidetza-sareetan eta aliantza estrategikoetan.

Erronka horiei eraginkortasunez erantzuteko, proposatzen da ezartzea Gipuzkoako ETEetan kualifikazio teknologiko-digitala indartzeko laguntza-programa, honako helburu estrategiko hauekin:

— Sustatzea lan-merkatuaren egungo eta etorkizuneko eskariekin lerrokatutako gaitasun teknologiko aurreratuak eskuratzea, honako teknologia hauek barnean hartuta: 4.0 industria (robotika aurreratua, industria-gauzen Internet, sistema ziberfisikoak, biki digitalak, simulazio industrial aurreratua, fabrikazio gehigarria, 3D inprimatzea, ikusmen-artifiziala eta 3D ikuskapen-sistemak eta neurketa aurreratua); datuen analisia eta adimen artifiziala (datu-zientzia, analitika aurreratua, ikaskuntza automatikoa, adimen artifizial aplikatua, datu-bolumen handien kudeaketa eta datu-arkitekturen garapena); konektibitatea, kon-

con las tendencias de otros territorios, diversos análisis realizados evidencian la alta demanda de personas técnicamente especializadas. Las tendencias tecnológicas emergentes, como la inteligencia artificial, la ciberseguridad y el análisis masivo de datos (big data), ponen de manifiesto la falta de personas cualificadas en estos ámbitos. Gipuzkoa, al igual que otras regiones europeas avanzadas, enfrenta un déficit significativo de profesionales de alta cualificación tecnológica, situación que representa un obstáculo estructural para el desarrollo sostenido y la competitividad en nuestro territorio.

Es fundamental adoptar un nuevo paradigma educativo-laboral que contemple la formación de talento como un proceso permanente a lo largo de toda la vida profesional, implementando estrategias efectivas tanto de recualificación («reskilling») como de mejora de la cualificación existente («upskilling»).

Además, el apoyo a las mujeres en el desarrollo tecnológico es clave para reducir la brecha de género en un sector donde su presencia sigue siendo minoritaria. Impulsar su participación no solo fomenta la equidad, sino que también fortalece la innovación y ayuda a cubrir la creciente demanda de talento tecnológico.

La Diputación Foral de Gipuzkoa, en su firme compromiso con un desarrollo sostenible e inclusivo, ha establecido como prioridad estratégica la creación de mecanismos de apoyo que faciliten la transición profesional hacia las tecnologías emergentes y las nuevas exigencias del mercado laboral.

Esta prioridad queda explícitamente recogida en el Plan Estratégico 2024-2027, específicamente en el Reto 3: «Adaptarse y anticiparse a los procesos globales de digitalización y transformación tecnológica, aprovechando las nuevas oportunidades que surgirán desde el punto de vista de la eficiencia, la competitividad, la innovación y la sostenibilidad, y dando respuesta a los desafíos que surgen en ámbitos como la formación y la retención y atracción de talento, la cultura empresarial o las relaciones sociales, sin dejar de lado las personas». La línea de acción 3.1.3 establece claramente el objetivo de «Crear, atraer, consolidar y fidelizar el talento y reforzar las capacidades de las personas, entre otros, creando proyectos atractivos.».

La Dirección General de Innovación ha identificado como necesidad estratégica prioritaria impulsar el desarrollo de perfiles profesionales tecnológicamente adaptados a un entorno empresarial en constante evolución tecnológica. Esta necesidad adquiere especial relevancia en el caso de las PYMES, que enfrentan desafíos significativamente mayores debido a múltiples factores:

— Acceso limitado a tecnologías avanzadas y su correspondiente infraestructura.

— Recursos económicos y humanos más restringidos para actividades de innovación y desarrollo.

— Escasez de programas formativos especializados adaptados a sus necesidades específicas.

— Menor integración en redes colaborativas y alianzas estratégicas que potencien el intercambio de conocimiento y recursos tecnológicos.

Para responder eficazmente a estos retos, se propone la implementación de un programa de ayudas destinado a fortalecer la cualificación tecnológico-digital en las PYMES de Gipuzkoa, con los siguientes objetivos estratégicos:

— Potenciar la adquisición de competencias tecnológicas avanzadas alineadas con las demandas actuales y futuras del mercado laboral, abarcando tecnologías como: Industria 4.0 (Robótica avanzada, Internet de las Cosas industrial, sistemas ciberfísicos, gemelos digitales, simulación industrial avanzada, fabricación aditiva, impresión 3D, visión artificial y sistemas de inspección 3D y medición avanzada); análisis de datos e inteligencia artificial (ciencia de datos, analítica avanzada, aprendizaje automático, inteligencia artificial aplicada, gestión de grandes volúmenes de datos y desarrollo de arquitecturas de datos); co-

EK\CV GAO-I-2026-01371

putazioa, hodeia eta zibersegurtasuna (ingurune industrialetarako segurtasun-protokoloak, gertaeren kudeaketa, azterketa digital-forentsea, araudia betetzea eta datu pertsonalak babestea); sortzen ari diren teknologia disruptiboak (konputazio kuantikoa, prozesu industrialei aplikatutako errealitate areagotua/birtuala, etab.).

— Desoreka murriztea prestakuntza-eskaintzaren eta profil teknologikoen enpresa-eskariaren artean, Gipuzkoako garapen ekonomikorako estrategikotzat jotako sektoreetan.

— Gaitasun teknologikoen zaharkitzeari aurrea hartzea, eguneraketa bultzatuz bilakaera teknologiko bizkorrean.

— Eraldaketa-prozesuan dauden sektoreetan profesionalen enplegagarritasuna hobetzea, osagai teknologiko handiagoko roletara birmoldatzea erraztuz.

— Gipuzkoako enpresa-sarearen lehiakortasuna bultzatzea, talentu teknologiko-digitala eskuratuta.

— Teknologia-sektorean genero-arrakala iraunkorra murriztea, emakumeek teknologia-esparruetan sarbidea, prestakuntza eta lanbide-garapena izan dezaten modu aktiboan sustatuz.

Dirulaguntza lerro hau sartuta 2024-2027 dago Dirulaguntzen Plan Estrategikoan (DLPE).

Horiek horrela, Ekonomia Sustapeneko eta Proiektu Estrategikoetako Departamentuko foru diputatuak proposatuta, Diputatuen Kontseiluak, eztabaidatu ondoren,

ERABAKITZEN DU

*Lehenengo.* Onestea erabaki honen I. eranskineko oinarri arautzaileak, «Igarobide.Tek: Gaitasun teknologiko-digitalen prestakuntza sustatzea, talentu profesionala egokitzeko» programaren dirulaguntzak emateko.

*Bigarren.* Onestea dirulaguntzen 2026ko deialdia, erabaki honen II. eranskinean jasota dagoena.

*Hirugarren.* 2026ko ekitaldiko deialdiari aurre egiteko 250.000 euroko gastua baimentzea, aurrekontuko partida honen arabera: 1.0520.210.470.00.02.2026: 250.000,00 €.

Aurkeztutako eskaerak ebatzi aurretik, aldaketaren zenbatekoaren arabera eskumena duen organoak onartutako gastuaren zenbatekoa handitu ahal izango du, deialdi berri bat egin gabe. Kopuru gehigarria eraginkorra izateko baldintza izango da dirulaguntzak ematea ebatzi aurretik kreditua erabilgarri deklaratzea.

*Laugarren.* Erabaki honek onesten dituen oinarri arautzaileek ondorioak izango dituzte Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzen diren egun beretik aurrera.

Erabaki hau behin betikoa da eta amaiera ematen dio administrazio bideari. Interesdunek erabaki honen aurka zuzenean administrazioarekiko auzi errekurtsoa aurkez dezakete Donostiako Auzialdiko Auzitegiko Administrazioarekiko Auzien Atalean argitalpenaren biharamunetik hasita bi hilabeteko epean.

Hala ere, partikularrek aukera dute horren aurretik berraztertzeko hautazko errekurtsoa aurkezteko Diputatuen Kontseiluari, argitalpenaren biharamunetik hasita hilabeteko epean. Hori eginez gero, ezingo da administrazioarekiko auzi errekurtsorik aurkeztu harik eta berraztertzekoaren berariazko ebazpena eman edo ustezko ezespena gertatu arte. Dena dela, egoki iritzitako beste edozein errekurtso aurkez daiteke.

Donostia, 2026ko otsailaren 26a.—Departamentuko idazkari teknikoa. (1371)

nectividad, computación, nube y ciberseguridad (protocolos de seguridad para entornos industriales, gestión de incidentes, análisis forense digital, cumplimiento normativo y protección de datos personales); tecnologías emergentes disruptivas (computación cuántica, realidad aumentada/virtual aplicada a procesos industriales, etc.).

— Reducir el desequilibrio existente entre la oferta formativa y la demanda empresarial de perfiles tecnológicos en sectores identificados como estratégicos para el desarrollo económico de Gipuzkoa.

— Anticipar y prevenir la obsolescencia de competencias tecnológicas impulsando actualización en la acelerada evolución tecnológica.

— Mejorar la empleabilidad de profesionales en sectores en proceso de transformación, facilitando su reconversión hacia roles de mayor componente tecnológico.

— Impulsar la competitividad del tejido empresarial guipuzcoano mediante la disponibilidad de talento tecnológico-digital.

— Reducir la persistente brecha de género en el sector tecnológico, promoviendo activamente el acceso, formación y desarrollo profesional de las mujeres en ámbitos tecnológicos.

La presente línea de subvención se encuentra incluida en el Plan Estratégico de Subvenciones 2024-2027 (PES).

En su virtud, a propuesta del diputado foral del Departamento de Promoción Económica y Proyectos Estratégicos, previa deliberación, el Consejo de Gobierno Foral

ACUERDA

*Primero.* Aprobar las bases reguladoras que se adjuntan como anexo I al presente acuerdo para la concesión de las subvenciones del programa «Igarobide.Tek: Impulso a la formación de competencias tecnológico-digitales para la adaptación del talento profesional».

*Segundo.* Aprobar la convocatoria correspondiente al ejercicio 2026 que se acompaña como anexo II al presente acuerdo.

*Tercero.* Autorizar un gasto por importe de 250.000 euros para hacer frente a la convocatoria del ejercicio 2026 con cargo a la siguiente partida presupuestaria: 1 0520.210.470.00.02 2026: 250.000,00 €.

El importe del gasto autorizado podrá ser incrementado, con carácter previo a la resolución de las solicitudes presentadas, por el órgano que tenga atribuida la competencia por razón de la cuantía de la modificación, sin que ello dé lugar a una nueva convocatoria. La efectividad de la cuantía adicional queda condicionada a la declaración de disponibilidad del crédito en un momento anterior a la resolución de la concesión de las subvenciones.

*Cuarto.* Las bases reguladoras que se aprueban en virtud del presente acuerdo surtirán efectos desde el mismo día de su publicación en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa.

Este acuerdo es definitivo y pone fin a la vía administrativa. Las personas interesadas podrán interponer directamente contra él recurso contencioso-administrativo ante la Sección de lo Contencioso-Administrativo del Tribunal de Instancia de San Sebastián, en el plazo de dos meses a partir del día siguiente al de su publicación.

No obstante, las personas particulares, con carácter previo, podrán interponer recurso potestativo de reposición ante el Consejo de Gobierno Foral, en el plazo de un mes a partir del día siguiente al de su publicación. En este caso, no se podrá interponer recurso contencioso-administrativo hasta que sea resuelto expresamente el de reposición o se haya producido su desestimación presunta. Todo ello sin perjuicio de la interposición de cualquier otro recurso que se estime pertinente.

San Sebastián, a 26 de febrero de 2026.—El secretario técnico del Departamento. (1371)

EK\CV GAO-I-2026-01371

I. ERANSKINA

*Igarobide.Tek: Gaitasun teknologikoen prestakuntza bultzatzea, talentu profesionala egokitzeko programaren oinarri arautzaileak.*

*1. oinarria. Objektua.*

Eraldaketa digitalak, automatizazioak eta produkzio-ereduen aldaketa bizkorrek markatutako testuinguru batean, Gipuzkoako enpresek langileen etengabeko prestakuntzan egiten duten inbertsioa sustatzea, gaitasun teknologikoen egokitzapena bultzatzeko, lurraldearen lehiakortasun ekonomikoa eta gizarte-ongizatea bermatzeko elementu kritiko gisa.

*2. oinarria. Dirulaguntzen onuradun izateko entitate onuradunek bete beharreko baldintzak.*

2.1. Erakunde onuraduntzat hartuko dira jarduera Gipuzkoan garatzen duten enpresa txiki eta ertain industrialak (ETEak), baldin eta parte hartzen duten langileek Gipuzkoako zentro horretan lan egiten badute.

Prestakuntza-ikastaroek 3. oinarrian adierazitako ezaugarriak bete behar dituzte.

2.2. Oinarri hauetan arautzen diren dirulaguntzen onuradun izan daitezke aurreko atalean aipatzen diren enpresak, betiere baldintza hauek betetzen badituzte:

— Gipuzkoako Lurralde Historikoko dirulaguntzei buruzko martxoaren 27ko 3/2007 Foru Arauak 12. artikuluan ezarritako debekuen eraginpean ez egotea.

— Zigor administratiborik edo penalik ez izatea sexu diskriminazioa dela eta, Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duen, martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuak aurreikusitakoaren arabera.

Baldintza horiek betetzen direla egiaztatzeko, eskatzaileak erantzukizunpeko aitorpen bat aurkeztuko du.

— Zerga betebeharretan eta Gizarte Segurantzako betebeharretan egunean egotea.

Ekonomia Sustapeneko eta Proiektu Estrategikoetako Departamentuak egiaztatuko du eskatzaileak zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela. Horretarako, zuzenean eskatuko ditu datu horiek dagozkion organismo igorleetatik plataforma korporatiboen, bitartekaritza-plataformen (Nisae, Euskadiko administrazioen segurtasunerako eta elkarreragintasunerako nodoa) edo sarbide publikoko plataformen bidez; hori posible izango ez balitz, enpresa eskatzaileari eskatuko zaio dagokion dokumentazioa aurkeztea.

Eskaeran berariaz adierazi ahal izango dute egiaztapen automatikoaren aurka daudela; kasu horretan, Ogasuneko eta Gizarte Segurantzako organo administratiboek emandako ziurtagiriak aurkeztu beharko dituzte.

*3. oinarria. Dirulaguntzaren xede diren jarduerak.*

3.1. Diruz lagundu ahal izango dira Teknologia arloan egindako prestakuntza-ikastaroak.

Diruz lagunduko diren gai zehatzak deialdi bakoitzean zehaztuko dira.

3.2. Prestakuntza-ikastaro teknologikoak, betiere industria-enpresa onuradunetako langileak prestatzeko, kanpoko edo barruko ikastaroak izan daitezke.

Ikastaroa kanpokoa bada, gehienez ere lau langileren partehartzea diruz lagundu ahal izango da enpresa bakoitzeko, betiere horietako bat gutxienez emakumea bada. Baldintza hori betetzen ez bada, gizon bakar batek parte hartu ahal izango du.

Industria-enpresetan ematen diren barneko prestakuntza-ikastaroak gutxienez 4 pertsonaz osatuta egongo dira, eta horietako batek emakumea izan beharko du.

ANEXO I

*Bases reguladoras del programa Igarobide.Tek: Impulso a la formación de competencias tecnológicas para la adaptación del talento profesional.*

*Base 1.ª Objeto.*

En un contexto marcado por la transformación digital, la automatización y los cambios acelerados en los modelos productivos, fomentar la inversión de las empresas de Gipuzkoa en formación continua de sus personas trabajadoras con el fin de impulsar la adaptación de las competencias tecnológicas como elemento crítico para garantizar la competitividad económica y el bienestar social del territorio.

*Base 2.ª Requisitos que deben reunir las entidades beneficiarias.*

2.1. Tendrán la consideración de entidades beneficiarias las pequeñas y medianas empresas (PYMEs) industriales que desarrollan su actividad en Gipuzkoa, siempre que las personas trabajadoras que participen trabajen en dicho centro.

Los cursos formativos tienen que cumplir las características indicadas en la base 3.ª

2.2. Podrán acogerse a las subvenciones reguladas en estas bases las empresas a las que se refiere el apartado anterior siempre que reúnan los siguientes requisitos:

— No estar afectadas por ninguna de las prohibiciones del artículo 12 de la Norma Foral 3/2007, de 27 de marzo, de subvenciones del Territorio Histórico de Gipuzkoa.

— No haber sido sancionadas, administrativa o penalmente por incurrir en discriminación por razón de sexo, según lo previsto en el Decreto Legislativo 1/2023, de 16 de marzo, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley para la Igualdad de Mujeres y Hombres y Vidas Libres de Violencia Machista contra las Mujeres.

La acreditación de estos requisitos se efectuará mediante la presentación de una declaración responsable.

— Estar al corriente en el cumplimiento de sus obligaciones tributarias y de Seguridad Social.

El Departamento de Promoción Económica y Proyectos Estratégicos comprobará el cumplimiento de las obligaciones tributarias y frente a la Seguridad Social. A tal fin, recabará los referidos datos directamente de los organismos emisores de los mismos a través de plataformas corporativas, de intermediación (Nisae, nodo de interoperabilidad y seguridad de las administraciones de Euskadi) o de acceso público; en caso de que ello no fuera posible, se requerirá su aportación a la empresa solicitante.

Podrán manifestar en la solicitud su oposición expresa a la verificación automática, en cuyo caso deberán aportar las correspondientes certificaciones expedidas por las instancias administrativas de Hacienda y Seguridad Social.

*Base 3.ª Actuaciones objeto de subvención.*

3.1. Serán objeto de subvención la realización de cursos formativos en el ámbito de la tecnología.

Las temáticas concretas que serán objeto de subvención se definirán en cada convocatoria.

3.2. Los cursos tecnológicos de formación, siempre para formar al personal de las empresas industriales beneficiarias, podrán ser externos o internos.

Si el curso es externo, se podrá subvencionar la participación de hasta un máximo de cuatro personas trabajadoras por empresa, siempre que al menos una de ellas sea mujer. En caso de no cumplirse este requisito, solo podrá participar un hombre.

Los cursos formativos internos impartidos en las empresas industriales estarán compuestos como mínimo de 4 personas, y una de ellas deberá ser mujer.

EK\CV GAO-I-2026-01371

3.3. Egindako prestakuntza-ikastaroen gutxieneko ordu-kopurua 15 ordukoa izango da.

3.4. Prestakuntza ikastaroak presentzialak, birtuala, online edo mistoak/hibridoak izan ahalko dira.

3.5. Prestakuntza-ikastaroa amaitzean, dagokion galdetegia bete beharko da. Ikastaroa dagoeneko eginda badago, laguntza-eskaera eta justifikazioa une berean eskatu ahal izango dira.

3.6. Eskabide-inprimakian prestakuntza-ikastaroa egiteko beharra deskribatuko da.

*4. oinarria. Diruz lagundu daitezkeen gastuak.*

4.1. Industria-enpresetako langileek egindako kanpo-ikastaroen kasuan, egindako prestakuntza-ikastaroen matrikula-gastuak baino ez dira diruz lagunduko.

4.2. Industria-enpresek beren langileentzat egindako barne-ikastaroen kasuan, diruz laguntzeko modukotzat joko da antolatutako prestakuntza-ikastaroaren azpikontratazioaren kostua, faktura ordainduz justifikatuko dena.

4.3. Fakturan jasanarazitako balio erantsiaren gaineko zerga ez da diruz lagundu daitekeen gastutzat joko.

*5. oinarria. Dirulaguntzen portzentaia eta gehieneko zenbatekoa.*

5.1. Diruz lagundu daitekeen zenbatekoa eta dirulaguntza, oinarrietan ezarritako baldintzen arabera, eta bete beharreko inprimaki eta galdetegiaren, eta fakturaren ekarpenean ezarritako baldintzen arabera finkatuko dira, aurrekontuko baliabideak kontuan hartuta.

5.2. Prestakuntza-ikastaroa kanpokoa bada, honako hau izango da jaso beharreko gehieneko dirulaguntza:

— Parte-hartzailea emakumea bada: 960 euro/parte-hartzaileko.

— Gizonen kasuan: 800 euro/parte-hartzaileko.

— Enpresa bakoitzeko gehieneko dirulaguntza: 3.840 €.

5.3. Prestakuntza-ikastaroa barnekoa bada, jaso beharreko gehieneko dirulaguntza 3.840 € izango da enpresa bakoitzeko.

5.4. Ikastaroa euskaraz ematen bada, goian adierazitako zenbatekoak % 20 igoko dira.

*6. oinarria. Eskaerak aurkezteko modua eta epea.*

6.1. Enpresa bakoitzak eskabide bakarra aurkeztuko du, prestakuntza-ikastaroa egingo edota egin duten erakundeko langileei buruzko informazioa jasoz.

Hala ere, baldin eta, eskaera hori aurkeztu ondoren, enpresak ikastaroa egingo duten edo egin duten langile berriak baditu, eta betiere diruz lagundu daitezkeen pertsonen gehieneko kopurua eta ezarritako dirulaguntzaren gehieneko zenbatekoa gainditu ez badira, enpresak dagoeneko aurkeztutako eskaera handitu ahal izango du langile berri horiek sartzeko.

6.2. Eskaerak eta erantsitako dokumentazioa bitarteko elektronikoak erabiliz aurkeztu behar dira, Gipuzkoako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren bitartez (https://egoitza.gipuzkoa.eus), dirulaguntzen atarian sartuz eta horretarako eskuragarri dagoen eskabidea betez. Eskaera orria, eta hari erantsitako dokumentazioa aurkezterako orduan kontuan hartuko da, irailaren 28ko 23/2010 Foru Dekretua, foru administrazioaren esparruan bitarteko elektronikoen erabilera arautzen duena.

Enpresa interesdunaren ordezkari gisa aurkeztutako eskabideek bat etorri beharko dute Gipuzkoako Foru Aldundiaren le-

3.3. El número de horas mínimo de los cursos de formación realizados será de 15 horas.

3.4. Los cursos de formación podrán ser presenciales, virtuales, online o mixtos/híbridos.

3.5. Al finalizar el curso formativo, se deberá rellenar el correspondiente cuestionario. En el caso de que el curso ya esté realizado, se podrá presentar la justificación en el mismo momento de realizar la solicitud de ayuda.

3.6. En el formulario de solicitud se describirá la necesidad de realizar el curso formativo.

*Base 4.ª Gastos subvencionables.*

4.1. En el caso de los cursos externos realizados por personas trabajadoras de las empresas industriales, se considerarán subvencionables únicamente los gastos de la matrícula de los cursos formativos desarrollados.

4.2. En el caso de los cursos internos realizados por las empresas industriales para sus personas trabajadoras, se considerará subvencionable el coste de la subcontratación del curso formativo organizado, que se justificará mediante el pago de factura.

4.3. No tendrá la consideración de gasto elegible el Impuesto sobre el Valor Añadido repercutido en factura.

*Base 5.ª Porcentaje y cuantía máxima de subvención.*

5.1. El importe subvencionable y la subvención se fijarán con arreglo a las condiciones fijadas en las bases, el formulario y cuestionario a rellenar y la aportación de la factura, teniendo en cuenta las disponibilidades presupuestarias.

5.2. La subvención máxima a recibir, si el curso formativo es externo será:

— En el caso de que la participante sea mujer: 960 euros/participante.

— En el caso de que el participante sea hombre: 800 euros/participante.

— Subvención máxima por empresa: 3.840 €.

5.3. La subvención máxima a recibir, si el curso formativo es interno será de 3.840 € por empresa.

5.4. En el caso de que el curso se imparta en euskera, los importes arriba indicados se incrementarán en un 20 %.

*Base 6.ª Forma y plazo de presentación de solicitudes.*

6.1. Cada empresa presentará una única solicitud, en la que se recogerá la información correspondiente a las personas trabajadoras de la entidad que vayan a realizar o hayan realizado el curso formativo.

No obstante, en caso de que, con posterioridad a la presentación de dicha solicitud, la empresa cuente con nuevas personas trabajadoras que vayan a realizar o hayan realizado el curso, y siempre que no se haya superado el número máximo de personas subvencionables ni el importe máximo de subvención establecido, la empresa podrá ampliar la solicitud ya presentada para incluir a estas nuevas personas trabajadoras.

6.2. Las solicitudes, junto con el resto de documentación, deberán presentarse, vía Internet, a través de la sede electrónica de la Diputación Foral de Gipuzkoa (https://egoitza.gipuzkoa.eus), accediendo al portal de subvenciones y cumplimentando el formulario específico disponible a estos efectos. Esta presentación de las solicitudes y de la documentación complementaria se realizará en los términos previstos en el Decreto Foral 23/2010, de 28 de septiembre, por el que se regula la utilización de medios electrónicos en el ámbito de la Administración Foral.

Las solicitudes formuladas en representación de la empresa interesada deberán de ajustarse bien a lo dispuesto en la Orden

EK\CV GAO-I-2026-01371

gezko ordezkaritzaren errolda arautzen duen urriaren 28ko 573/2014 Foru Aginduarekin edo Gipuzkoako Foru Aldundiaren borondatezko ordezkaritzaren errolda korporatiboa arautzen duen azaroaren 4ko 881/2014 Foru Aginduarekin.

6.3. Deialdiari buruzko informazioa web orri honetan eskura daiteke: https://egoitza.gipuzkoa.eus/eu/dirulaguntzak.

6.4. Eskaerak aurkezteko epea deialdian ezarriko da.

6.5. Eskaera egiterakoan, bi aukera izango dira:

6.5.1. Ikastaroa egin aurretik dirulaguntza eskatzea. Kasu horretan, industria-enpresek eskaera egiterakoan honako hauek aurkeztu beharko dituzte:

— Ikastaroa kanpokoa bada: prestakuntza-ikastaroaren matrikula.

— Ikastaroa barnekoa bada: ikastaroaren aurrekontu onartua.

6.5.2. Dirulaguntzaren eskabidea eta justifikazioa batera egitea. Kasu horretan, industria-enpresek honakoak aurkeztu beharko dituzte eskabidea egiterakoan:

— Ikastaroa kanpokoa bada: matrikula eta dagokion ordainagiria.

— Ikastaroa barnekoa bada: aurrekontua eta dagokion fakturaren ordainagiria.

6.6. Eskaera egin duten enpresak ez daude beharturik Gipuzkoako Foru Aldundiari aurrez eman diren dokumentuak aurkeztera. Ondorio horietarako, interesdunak adierazi beharko du noiz eta zer administrazio-organoren aurrean aurkeztu zituen dokumentu horiek, urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28.3 artikuluak zehazten duenari jarraituz. Dokumentazioa lortzea ezinezkoa den kasuetan, Berrikuntza Zerbitzuak eskatu ahal izango dio eskaera egin duen enpresari, edo aurkez dezala, edo, ezin badu, beste nolabait egiazta ditzala dokumentuan egiaztatu beharreko eskakizunak.

6.7. Eskaera orriak, edo harekin batera aurkeztutako agiriek, identifikazio daturik jasoko ez balute, akatsen bat izango balute edo daturen bat faltako balute, urriaren 1eko 39/2015 Legeak 68.1 artikuluan xedatutakoaren arabera, hamar eguneko epea emango litzaioke eskatzaileari hutsegite horiek konpontzeko, eta ohartaraziko litzaioke, horrela egin ezean, ulertuko dela eskaera bertan behera utzi duela, aipatutako legeak 21.1 artikuluan aurreikusitako eran.

6.8. Aurkeztutako eskaera behar bezala ebaluatu eta ebazteko behar adina dokumentu eta informazio eska ditzake departamentuak.

6.9. Enpresa eskatzaileak baliozkotzat joko ditu Ekonomia Sustapeneko eta Proiektu Estrategikoetako Departamentuak posta elektronikoaren bidez dirulaguntzaren eskaeran harremanetarako pertsona gisa identifikatutakoaren helbide elektronikora bidalitako komunikazio guztiak.

*7. oinarria. Dirulaguntzak emateko prozedura.*

7.1. Programa ETEei zuzenduta dago, eta zenbateko mugatua duten jarduerak laguntzea da helburua. Horrek esan nahi du urtean zehar sortzen diren jarduerak direla, baina, enpresaren tamaina eta jarduera mota kontuan hartuta, ez direla planifikatzen; beraz, horrek zaildu egiten du elkarrekiko norgehiagoka bidezko deialdi bat egitea.

Horregatik, norgehiagokarik gabeko prozedura erabiliko da dirulaguntzak emateko.

Eskaerak ebazteko, funtsak banatuko dira eskaerak jasotzen diren hurrenkeran, betiere, dokumentazioa behar bezala beteta badago eta deialdian ezarritako baldintza guztiak betetzen badira, eta 5. oinarri espezifikoan adierazitako mugak eta zenbatekoak gainditu gabe eta aurrekontu zuzkidura agortu arte. Deialdian xedatutako aurrekontua agortu arte.

Foral 573/2014, de 28 de octubre, por la que se regula el censo de representación legal de la Diputación Foral de Gipuzkoa, o bien a los términos expuestos en la Orden Foral 881/2014, de 4 de noviembre, por la que se regula el censo corporativo de representación voluntaria de la Diputación Foral de Gipuzkoa.

6.3. La información de la convocatoria estará disponible en la página web https://egoitza.gipuzkoa.eus/es/subvenciones.

6.4. El plazo de presentación de solicitudes se fijará en la convocatoria.

6.5. A la hora de realizar la solicitud habrá dos opciones:

6.5.1. Realizar la solicitud de subvención antes de haber realizado el curso, en cuyo caso las empresas industriales deberán presentar, a la hora de realizar la solicitud:

— Si el curso es externo: la matrícula del curso formativo.

— Si el curso es interno: el presupuesto aceptado del curso.

6.5.2. Realizar la solicitud de subvención a la vez que su justificación, en cuyo caso las empresas industriales deberán presentar, a la hora de realizar la solicitud:

— Si el curso es externo: la matrícula y el justificante de pago correspondiente.

— Si el curso es interno: el presupuesto y el justificante de pago de la factura correspondiente.

6.6. Las empresas solicitantes no estarán obligadas a presentar los documentos que hayan sido aportados anteriormente a la Diputación Foral de Gipuzkoa. A estos efectos, la persona interesada deberá indicar en qué momento y ante qué órgano administrativo presentó los citados documentos de conformidad con lo previsto en el artículo 28.3 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre. En los supuestos de imposibilidad material de obtener la documentación, el órgano competente podrá requerir a la empresa solicitante su presentación o, en su defecto, la acreditación por otros medios de los requisitos a que se refiere el documento.

6.7. Si la solicitud o la documentación que debe acompañarla no reunieran los datos de identificación, adolecieran de algún error o fueran incompletas, se requerirá a la empresa solicitante, de acuerdo con lo establecido en el artículo 68.1 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, para que, en un plazo de diez días, subsane la falta o acompañe los documentos preceptivos, con indicación de que, si así no lo hiciera, se le tendrá por desistido de su petición, previa resolución dictada en los términos previstos en el artículo 21.1 de la citada ley.

6.8. El departamento podrá requerir cuanta documentación e información complementaria considere necesarias para la adecuada evaluación y resolución de la solicitud presentada.

6.9. La empresa solicitante dará validez a todas las comunicaciones emitidas por el Departamento de Promoción Económica y Proyectos Estratégicos vía e-mail a la cuenta de correo electrónico de la persona de contacto identificada en la solicitud de ayuda.

*Base 7.ª Procedimiento de concesión.*

7.1. El programa va dirigido a las PYMEs y consiste en el apoyo a actuaciones de importe limitado, lo que implica que se trata de actuaciones que se van concibiendo a lo largo del año, sin que, por el tamaño de empresa y tipo de actuación, se planifiquen, lo que dificulta el desarrollo de una convocatoria por concurrencia competitiva.

Por ello, el procedimiento que se seguirá para la concesión de las subvenciones es el de concurrencia no competitiva.

Las solicitudes serán resueltas distribuyéndose los fondos en el orden en que se reciban las solicitudes, siempre que la documentación esté debidamente cumplimentada, se cumplan todos los requisitos establecidos en la convocatoria y sin superar los límites e importes señalados en la base específica 5.ª hasta agotar las disponibilidades presupuestarias.

EK\CV GAO-I-2026-01371

7.2. Laguntzak emateko prozedura ofizioz hasiko da, deialdi publiko bidez. Deialdia organo eskumendunak onartuko du eta Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratuko da.

*8. oinarria. Finantzaketa.*

Emango diren dirulaguntzak deialdiko urteari dagozkion Gipuzkoako Lurralde Historikoko Aurrekontu Orokorren kargura finantzatuko dira. Deialdian zehaztuko da zein aurrekontu kredituren kargura finantzatuko diren dirulaguntzak.

*9. oinarria. Prozedura izapidetzeko eskumena duen organoa.*

Berrikuntzako Zerbitzuak ebaluatuko ditu aurkeztutako eskaerak, eta dagokion ebazpen proposamena egingo du.

*10. oinarria. Eskaerak ebaztea.*

10.1. Laguntzak eman edo, hala dagokionean, ukatzeko erabakia Berrikuntzako zuzendari nagusiak hartuko du kontuan hartuta departamentuaren egitura organikoari eta funtzionalari buruz indarrean dagoen foru dekretuan zehaztutakoa.

10.2. Laguntzak eman edo, hala dagokionean, ukatzeko erabakia eskatzaile bakoitzari indibidualki jakinaraziko zaio.

10.3. Prozedura ebatzi eta jakinarazteko gehienezko epea 6 hilabetekoa izango da, deialdia argitaratu eta biharamunetik aurrera hasita. Gehieneko epea amaituta ebazpena berariaz jakinarazi ez bada, interesdunak legitimatuta daude dirulaguntza eskaera isiltasun administratiboagatik ezetsita dagoela ulertzeko.

*11. oinarria. Enpresa onuradunen betebeharrak eta konpromisoak.*

11.1. Enpresa onuradunek dirulaguntza onartzeak berekin dakar honako hauetan ezartzen diren betekizunen pean egotea: oinarri hauek; martxoaren 27ko 3/2007 Foru Araua, Gipuzkoako Lurralde Historikoko dirulaguntzei buruzkoa; eta hura garatzeko Erregelamendua, apirilaren 29ko 24/2008 Foru Dekretuaren bidez onartua. Bestalde, konpromiso hauek hartuko dituzte:

— Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Emakumeen aurkako Indarkeria Matxistarik Gabe Bizitzeko Legean ezarritako irizpide nagusiak betetzea diruz lagundutako jardueretan, bereziki alderdi hauei dagokienez: hizkera eta irudiak modu ez sexistan erabiltzea eta diruz lagundutako jarduera ebaluatzeko irizpideetan genero adierazleak sartzea.

— Euskal Autonomi Erkidegoko hizkuntza ofizialen erabilera bermatzea diruz lagundutako proiektuaren ondorioz egiten diren jakinarazpen, material eta jardueretan.

— Departamentuak dirulaguntzaren xederako ematen duen finantzaketari beharrezko publizitatea ematea. Horretarako, haren irudi instituzionala sartuko da, finantzaketa publikoari eta esku hartze publikoko programaren xedeari buruzko aipamenekin batera, karteletan, material inprimatuetan, baliabide elektroniko edo ikus-entzunezkoetan eta abarretan, hedabideetan egiten diren aipamenekin batera.

11.2. Baldin eta, dirulaguntza eman eta bost urteko epean, programaren enpresa onuradunen batek bere produkzio zentroen parte esanguratsu edo garrantzitsu bat Euskal Autonomia Erkidegotik kanpo lekualdatzen badu, enpresa onuradunak gertaera horren berri eman beharko dio Gipuzkoako Foru Aldundiari, eta dirulaguntza itzularazteko arrazoi izan daiteke hori, eta 16. oinarrian zehaztutakoari jarraituko zaio.

7.2. El procedimiento de concesión de las ayudas se iniciará de oficio mediante convocatoria pública, aprobada por el órgano competente y publicada en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa.

*Base 8.ª Financiación.*

Las subvenciones que, en su caso, puedan otorgarse se financiarán con cargo a los Presupuestos Generales del Territorio Histórico de Gipuzkoa correspondientes al año de la convocatoria. La convocatoria establecerá los créditos presupuestarios con cargo a los cuales se financiarán las subvenciones.

*Base 9.ª Órgano competente para la ordenación e instrucción del procedimiento.*

El Servicio de Innovación evaluará las solicitudes presentadas y elaborará la correspondiente propuesta de resolución.

*Base 10.ª Resolución de la concesión.*

10.1. La resolución sobre la concesión o, en su caso, denegación de las ayudas corresponderá al director general de Innovación, de conformidad con lo señalado en el decreto foral vigente de estructura orgánica y funcional del departamento.

10.2. La resolución de concesión o, en su caso denegación, se notificará a cada solicitante.

10.3. El plazo máximo para resolver y notificar la resolución será de 6 meses, contados a partir del día siguiente al de publicación de la convocatoria. El vencimiento del plazo máximo sin haberse notificado resolución expresa, legitima a las personas interesadas para entender desestimada la solicitud por silencio administrativo.

*Base 11.ª Obligaciones y compromisos de las empresas beneficiarias.*

11.1. La aceptación de las subvenciones por parte de las empresas beneficiarias implica la sujeción a las obligaciones establecidas con carácter general en las presentes bases, en la Norma Foral 3/2007, de 27 de marzo, de subvenciones del Territorio Histórico de Gipuzkoa, su Reglamento de desarrollo (aprobado por Decreto Foral 24/2008, de 29 de abril) y demás normativa aplicable en materia de subvenciones, así como el compromiso de:

— Cumplir en sus actuaciones subvencionables con los principios generales establecidos en la Ley para la Igualdad de Mujeres y Hombres y Vidas Libres de Violencia Machista contra la Mujer, en especial en lo que concierne a los siguientes aspectos: uso no sexista del lenguaje y de las imágenes, e inclusión de indicadores de género en los criterios de evaluación de la actividad subvencionada.

— Garantizar el uso de las lenguas oficiales de la Comunidad Autónoma del País Vasco en las comunicaciones, en la edición de materiales y en las actividades de divulgación que se deriven de la realización del proyecto subvencionado.

— Dar la adecuada publicidad a la promoción y financiación del departamento de los proyectos o actuaciones objeto de subvención, mediante la inclusión de su imagen institucional, así como de leyendas relativas a la financiación pública y al objeto del programa de intervención pública en carteles, materiales impresos, medios electrónicos o audiovisuales, y cualquier otro soporte o bien en menciones realizadas en medios de comunicación.

11.2. En el caso del traslado, por parte de alguna de las empresas beneficiarias del programa, de parte significativa o relevante de sus centros productivos fuera de la Comunidad Autónoma del País Vasco en un plazo de cinco años desde la concesión de la subvención, la empresa beneficiaria deberá comunicar dicha circunstancia a la Diputación Foral de Gipuzkoa, lo cual podrá ser causa de reintegro de la subvención y se estará a lo establecido en la base 16.ª

EK\CV GAO-I-2026-01371

11.3. Programa taldearen behar eta ezaugarrietara ongi moldatzen dela ziurtatzeko, enpresa onuradunak behartuta egongo dira programaren ebaluazioan lankide izatera.

11.4. Laguntza onartuz gero, laguntza jaso duten enpresek proiektuari buruzko informazioa eman beharko diote departamentuari, bai eta hura komunikazio helburuetarako erabiltzeko baimena ere, hori guztia, baliabide publikoen erabileran gardentasuna bultzatzeko eta, hala badagokio, zehazten diren hedapen ekimenetan laguntzeko.

11.5. Laguntza onartzearekin, onuradunak baimena ematen dio Gipuzkoako Foru Aldundiari legez dagozkion edo programaren kofinantzazioagatik aplikatu dakizkiokeen datu baseetan sartzeko dirulaguntzari buruzko informazioa.

*12. oinarria. Bateragarritasuna eta bateragarritasun-eza beste dirulaguntzekin.*

12.1. Oinarri hauen xede diren dirulaguntzak bateragarriak izango dira helburu bererako beste edozein dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabiderekin, baina, oro har, ezingo da gainditu benetako kostua.

12.2. Oinarri hauen arabera diruz lagundutako proiektua garatzeko dirulaguntza bat eskatzen edo lortzen duen enpresa onuradunak horren berri eman beharko dio departamentuari.

*13. oinarria. Dirulaguntzen ordainketa.*

13.1. Ordainketak egin aurretik, Ekonomia Sustapeneko eta Proiektu Estrategikoetako Departamentuak zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzen direla egiaztatu beharko du. Horretarako, zuzenean eskatuko die datu horiek organismo igorleei; datu horiek jasotzea posible izango ez balitz, eskatzaileari eskatuko zaio informazio hori aurkeztea.

